

I ELHEKETA: ASTE HUNTAKO ELHEPIDEA.

1. LANGILE guziek nahi zutena o por egin?
2. Langileak izan dira kanpoan ezarriak?
3. Nor dira hobendunak? Hobendun haundienak?

II

BURDIN-BIDETAKO LANGILEAK 2.

Gutiarik egin du, ez baita uste gabetarik bezala bet-betan<sup>19</sup> lehortu handitxua<sup>20</sup>, hedaturik behin, egun batetik bertzera, gorputz guzia hartzerainokoan.

Elgar ez dute oraiko huntan oraino aski ongi aditu burdin-bitetako langilek. Batzu lanari uko egitera zauden, bertzeak ez, tenorea<sup>21</sup> etzitzeielakotz iduri ethorria zela; geroxago utziz lana orok batean, lehenik ontsa<sup>22</sup> elgar hitzharturik, hobe zutela.

Zer da gerthatu? Buru beroenak berehala eman dire *en grève*<sup>23</sup>; buru-hotzak jarraiki aitzina lanari; bitartekoak —orotan bezala, hor ere baitire azkarrena zoin izanen den beha daudenak, ikusteko, norat eror— bitartekoak dilindan<sup>24</sup> bezala egon dire; lana utzi nahi, ez nahi; ez jakin zer egin...

Ohartu direnean, partida galtzera zoramateia langilek, dudako guziak egon dire higitu gabe beren lan hartarik.

Utzia zutenetarik ere anhitz berriz itzuli dire, buruak aphilik; zer egin zezaketen bertzerik?

Thematu<sup>25</sup> direnak han daude, lanik gabe, geroaren menturan<sup>26</sup>; egun guzietz nekezago ardiets<sup>27</sup> ahalko lana. Batzu ja errebokatua<sup>28</sup>; Baionan berean hogoi bat hurbil baitziren, bortzez berreak<sup>29</sup> hartu dituzte berriz. Orotara Frantzia guzian, nork daki inbat den geldituko errebokaturik?

Lana galduz geroz langilea urrikaltzeko da; orhoitu othe dire hortaz, langile dohakaben sustatzailcak?

Berek berentzat deus galtzekorik ez duten bazter nahastalek orai zer egin dezakete, zer axola ere othe dute, ogia gal-arazi dioten langilentzat zerbeiten egitez?

Ez dire bakarrik egun hautako buru berotzaleak hobendun. Hauk bezen edo gehiago dauzkagu eta dire kriminel, oraiko ministroak berak eta heiekilakoak.

Elhé ederrez hanturik ezarri dute jende xehea, ogi baino gasna gehiago hitzemanetz bethi. Eta gero? Dakizuen.

III ADITZ IKASKUNTZA

- |               |                     |
|---------------|---------------------|
| 31. Zauden    | 32. Etzitzeielakotz |
| 33. Zezaketen | 34. Dauzkagu        |

31. EGON - Indicatif Imparfait

|      |             |                 |
|------|-------------|-----------------|
| Ni   | mindagon    | = je restais    |
| Hi   | hindagon    | = tu restais    |
| Eu   | Zinauden    | = vous restiez  |
| Hura | Zagon       | = il restait    |
| Gu   | Ginauden    | = nous restions |
| Zuek | Zinaudezten | = vous restiez  |
| Heik | Zauden      | = ils restaient |

32. IZAN - Regime indirect Indicatif.

Imparfait.

|            |            |                 |
|------------|------------|-----------------|
| Hura       | zen        | = il était      |
| Hura (lui) | zitzaian   | = il m'était    |
|            | zitzaizun  | = il vous était |
|            | zitzaion   | = il lui était  |
|            | zitzaizun  | = il nous était |
|            | zitzaizuen | = il vous était |
|            | zitzaieun  | = il leur était |

33 UKAN - Potentiel Imparfait

| <u>Objet singulier.</u> | <u>Objet pluriel.</u> |                       |             |           |
|-------------------------|-----------------------|-----------------------|-------------|-----------|
| Nik                     | ukan                  | mezakhen = je pouvais | Ukan        | nitzaghen |
| Hi                      | hezakhen = l'avais    | "                     | nitzaghen   |           |
| Zuk                     | zinezakhen =          | "                     | zinitzaghen |           |
| Harek                   | zezakhen =            | "                     | zitzaghen   |           |
| Gu                      | ginezakhen =          | "                     | ginitzaghen |           |
| Zuek                    | zinezaketen =         | "                     | zinitzaghen |           |
| Heiek                   | zezaketen = etc       | "                     | zitzaghen   |           |